



MURUETAKO UDALA

Goierria Eleizaldeko 5. XU urbanizatze-proiektuaren behin betiko onarpena.

Udal honetako Alkate-udalburu jaunak hartutako erabakia, irailaren 6an, 33/2013 zenbakiko Dekretuaren bidez, Goierria-Eleizaldeko 5.X.U.ko Proiektu Urbanizagarria behin-betiko onestea erabaki da.

Administrazio bidea agortzen duen ebazpen honen aurka, egintza hau jakinarazi eta biharamunetik zenbatutako hilabeteko epean, berraztertzeko hautazko errekurtsioa jarri dezakezula organo honen aurrean, ala, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, txanda tokatzen zaion Bilboko Administrazioarekiko Auzien Salan, administrazioarekiko auzi eskumena arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8 eta 10 artikuluetan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena (EAO, 309 zbka, 2003ko abenduaren 26a), abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoaren hamalagarren xedapen gehigarriak aldatuta, (2003ko abenduaren 26ko 309 zenbakidun EAO), iragarki hau argitaratu eta biharamunetik zenbatutako bi hilabeteko epean; hori guztia Herri Administrazioetako Erregimen Juridikoaren eta Guztiontzako Administrazio-Prozeduraren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 48.2, 116 eta 117 artikuluek ezarritakoaren arabera (1992ko azaroaren 27ko 285 zenbakiko EAO), urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita dagoen arabera, 30/1992 Legean aldatuta (EAO, 12 zbka, 1999ko urtarrilaren 14a).

Berraztertzeko Errekurtsioa egitekotan, ezingo da Administrazioarekiko Auzi-errekurtsioa jarri harik eta lehenengoa ebatzi dadin arte edota ustezko gaitzespena gertatu arte. Hala egokituz gero, dagokion Epaitegiari zuzen diezaiokezu errekurtsioa, baldin eta Administrazioarekiko Auzi Eskumena arautzen duen aipatu Legearen 14.1 artikulua erregela ezargarria suertatzen bada. Era berean, zure eskubideak modurik egokienean defendatzeko beste edozein errekurtsio nahiz ekintza egin dezakezu. Guzti hau argitara ematen da, Hirigintzako Planeamendurako Araudiaren 141.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Murueta, 2013ko irailaren 13an.- Alkateak.

